



OINARRIAK

0 LEHIAKETAREN DESKRIPZIOA

Rockein! Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako musika proiektuak bultzatzea bilatzen duen lehiaketa da, talde eta bakarlarietara zuzendua, eta sarien aldetik eskaintzen da, batetik, musika alorrean profesional aktiboekin material berria grabatzea, produzitzea eta masterizazioa egitea, eta bestetik, MAZ Basauri festibalean parte hartzeko aukera.

Rockein! Basauriko Udalak antolatzen du (hemendik aurrera “Antolakundea”).

Rockein! lehiaketaren antolatzaileak **2024ko maiatzaren 27tik 2024ko uztailaren 11ra** arte onartuko ditu izen emateak. Epaimahaiak sei talde finalista hautatuko ditu, zuzenean, Basauriko Sozial Antzokian parte har dezaten **2024ko azaroaren 16an, larunbata**. Zuzeneko saioen ondoren, epaimahaiak lehiaketaren irabazleak zein talde izan diren erabakiko du.

1 SARIAK

Rockein! lehiaketako sariak hauek dira:

TALDE IRABAZLEA;

- EP profesional bat grabatu, ekoiztu eta masterizatu Bilboko El Tigre Estudioan.
- Bideoklip profesional bat grabatu eta ekoiztea.
- MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

TOKIKO TALDE ONENA:

- Bideoklip profesional bat grabatu eta ekoiztea.
- MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

EUSKARAZKO TALDERIK ONENA:

- MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

ESKARABILERA SARIA:

- MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

Epaimahaiak eskumena du edozein sari eman barik uzteko.

Sariak ezin dira metatu, eta beraz, talde bakar batek ezingo ditu bi irabazi.

Talde sarituek konpromisoa hartzen dute antolakundeak finkaturiko epeak eta gestiorako baldintzak betetzeko material berriak gauzatze prozesuan.

2 BALDINTZAK

Lehiaketan taldeek izena eman ahal izateko baldintza hauek bete behar dituzte:

- Parte hartuko duen taldeak, gutxienez, **Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan** jaiotako edo egoitza bertan duen kide bat izan behar du.
- Kideek **16 urtetik gora** izan behar dute.
- Izena emateko unean, **ez edukitzea editatuta disko bat baino gehiago (LP), hori diskografia baten menpe egonda edo ez..**
- **Abestiak originalak** izatea. Antolatzaileek eskatuz gero, horien egile izatea frogatu beharko da.
- Musika estilo guztiak onartzen dira.
- «Eskarabilera saria» sailean aurkeztu ahal izateko, gutxienez, taldekide erdiak emakumezkoak izan behar dira.
- **Aurreko urteetako talde sarituek ere parte hartzeko aukera** izango dute, baina horiek ez dute sari bera errepikatzeko aukerarik izango.

Antolakundeak, Lehiaketako edozein fasetan, **talde batek lehiaketako oinarriak betetzen ez baditu, lehiaketatik kanpo utziko du.**

3 IZEN EMATEAK

Taldeek Lehiaketan izena eman nahi izanez gero, **inskripzio-orria** bete beharko dute (hori hemen aurkituko duzue: basauri.net eta facebook/rockein), eta **2024ko maiatzaren 27tik uztailaren 11ra** bitartean hurrengo helbide elektroniko honetara bidali: rockeinlehiaketa@gmail.com. Horrekin batera, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- **3 abesti** mp3 formatuan.
- **Taldearen argazki bat** jpg formatuan.
- **Taldearen deskripzioa eta historia** doc, docx edo pdf formatuan.
- **Taldekideen errolda-agiriaren edo NANaren fotokopia**, EAEko edo Nafarroako jatorria egiaztatzeko.

TOKIKO TALDE ONENAREN sailean aurkeztu ahal izateko, gutxienez, taldekide bat erroldatuta egon beharko da hurrengo udalerrietako batean: Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Usansolo, Zaratamo. Beharrezkoa izango da jatorria NANaren edo erroldako egiaztagiraren fotokopiarekin frogatzea, izena emateko eskuorriarekin batera.

Izena emateko orria eta goian adierazitako dokumentuak eskuz entregatu ahal izango dira, edo bestela, posta bidez Zirt Zart Bulegoko instalazioetara (harrera ordutegia: 09:00-14:00 astearte, asteazken eta ostiraletan ,eta 16:00-19:30 astelehenetik ostegunera) helbide honetan: Basozelaiko Gizarte Etxea, Basozelai kalea 11, 48970 – Basauri (Bizkaia)

Eskatutako datu **pertsonalak Datu pertsonalen Babeserako lege-arautegian ezarrita bezala erabiliko dira**. Beraz, adierazten dizugu zure datu pertsonalak fitxategi batean sartuko ditugula eta helburu bakarra dela lehiaketaren gainean taldeari informazio jakingarria ematea. **Taldeak datu pertsonaletara sartu, zuzendu, baliogabetu eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du**, Antolakundeari idatziz horrela eskatuta.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira edukiagatik, hizkeragatik edo mezuagatik (hots, abestien letrak edota taldeak/bakarlariak proiektaturiko irudia/eszena) sexu diskriminazioa bultzatzea, edo iraingarriak izan, sensibiltatea zauritu edo hirugarren pertsonen eskubideak bortxa ditzaketen proposamenak.

Antolakundeak beretzat gordetzen du izen emateak birkalifikatzeko eskubidea, hori egitea egoki ikusten badu.

4 LEHIAKETAKO EPAIMAHAIA

Epaimahaikideak **musika alorreko profesionalak, prentsa eta irratiko** musika adituak, eta lehiaketako **antolatzaileen** ordezkarriak izango dira.

5 TALDEEN HAUTAKETA, AMAIERAKO KONTZERTUA ETA EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Izena emandako banda guztien artean, **epaimahaiak sei hautatuko ditu, Basauriko Social Antzokian zuzenean parte har dezaten 2024ko azaroaren 16an, larunbata**. Horietako hiruk **TALDE IRABAZLEA** izateko lehian arituko dira, eta beste hirurek **TOKIKO TALDE ONENAREN** saria jasotzeko (*gutxienez batek Basauriko errepresentazioa izan behar du*). Antolakundearen irizpideen arabera, banaketa hori aldatu ahal izango da. Epaimahaiak ebazpena kontzertuaren ondoren emango du.

Zuzeneko kontzertuko taldekideek inskripzioko pertsona berak izan behar dituzte. Halabeharreko arrazoiengatik taldekide baten aldaketa eginez gero, justifikatu egin behar da eta **antolakundeak baimena eman behar du**. Edozein kasutan, ordezkioak Oinarri hauetan jasotako baldintzak bete behar ditu.

6 JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK ETA BAIMENTZEAK

Azken faseari hasiera eman aurretik, sailkatutako banda batek bere abestiak jabetza intelektuala babesteko erakunde batean erregistraturik baditu, Lehiaketako antolatzaileei jakinarazi behar diete. Horrela parte hartzaile horien eskubideak babestuta geratuko dira.

Parte hartzaileek Antolakundeari baimena ematen diote Lehiaketan parte hartzearen sortutako musika eta irudiak zabaltzeko, baina helburu komertzialik gabe.

7 ANTOLAKUNDEARI BURUZ

Antolakundeak bere gain hartzen du, lehiaketa hobeto garatzeko helburuz, oinarri hauek aldatzeko eskubidea.

Lehiaketaren antolakundeak ez du ardurarik hartzen parte hartzaileek bidaltzen dituzten gaien gainean, baldin eta horiek hirugarrenen egile-eskubideak bortxatzen badituzte; gainera, erreklamaziorik egonez gero, parte hartzaileak izango dira arduradun bakarrak.

8 OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak Oinarri guztiak bere osotasunean onartzea adierazten du izena emandako kide bakoitzarentzat.

ARGIBIDE GEHIAGO:

Basauriko Udala - Zirt Zart Gazte Bulegoa

-Telf : 944 666 430

-Emaila: rockeinlehiaketa@gmail.com

-Web: basauri.net

-Sare Sozialak:

-Facebook: facebook.com/rockein

-Twitter: #rockein @rockeinrock